

**2021EKO ABENDUAREN 16AN EGINDAKO
EZ-OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Gorka Murua Macuso

Zinegotziak

Noelia Lataburu Ortiz

Olaia Nieto Legarra

Leticia Aristi Oria

Ana Jesus Leunda Gurrutxaga

Jose Ramón Epelde Irizar

María Cristina Santos San Sebastian

Marta Castrillo Iturralde

Etorri ez direnak: Mikel Iturbe Saizar

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko abenduaren 16an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko EZ-OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

1.- 2022KO UDAL AURREKONTUA HASIERAZ ONARTZEA.

Gorka Murua Alkateak hitza hartu du eta 2022ko aurrekontuen lanketa aurreko urteekin alderatuta ezberdina izan dela adierazi du, gastuen eta sarrerren azterketa xehatua egin dela aurten eta sarreretan zehatziaz jokatzeko irizpidea erabili dutela.

Gainera eta udalaren egoera finantzarioa ahalik eta errealena izate aldera, azaro abendu bitarteko fakturak ere ordaintzen ari direla. Ariketa hori eginez udalaren osasun ekonomikoaren argazki garbiagoa izango delakoan.

Udal aurrekontuko aldaketa nabarmenenak edo deigarrienak azaldu ditu ondoren sailez sail.

Lehenengo, sarrerren azalpenak eman ditu eta ondoren gastuen atalera egin du salto.

Egongo diren aldaketen artean, aipatu du Loatzo Musika eskola mankomunitateari bideratzen den ekarpena ustez, txikitu egingo dela Eusko Jaurlaritzaren bideratzen ari den araudia- ren aldaketa dela eta.

Halaber, Tolosaldea Mankomunitateari egiten zaion ekarpena txikitzea pentsatzen da, bildutako hondakinen kopuruan izango den aldaketaren esperoan, edukiontzietan jarriko diren txipak direla eta.

EAJ taldeari EhBilduk egindako proposamena bidali zitzaiola eta 4 proposamen jaso dituztela adierazi du jarraian:

- 1.-Kotxe elektrikoaren karga puntua jartzea: GFAldundiarekin elkarlanean ari da udaletxea energia komunitatea sortzeko eta proiektu horren baldintzen artean kotxeak kargatzeko puntu elektrikoa ere islatuta dago. Udalak Aldundiari, udal eraikinen emakida egin behar du 25 urtez.
- 2.-Bizikletak konpontzeko gune bat, horretarako udalak aurrekontuak eskatu ditu eta 3.000€ gorde ditu eginkizun honetarako.
- 3.-Kaskailu plazan berrikuntzak egitea, Alkateak adieraz du ados daudela, 2.001. urtean egindako parkea dela eta, baina, aurtengo aurrekontuan beste lehentasun batzuk ere badaudela gaineratu du.
- 4.-Ibaondo gunean komun publiko bat ezartzea: parte-hartze prozesuan izandako emaitzen ondorioz komun publikoa plaza inguruan ezarriko dela, baina ados daudela gune hori oso egokia dela horretarako ere.

Edonola ere, proposamen guztiak ontzat hartu dituzte, eta horien artean 2.022.urteko aurrekontuetan bizikleta konpontzeko gunea atxikitzea onartu dute, halaber, beste proposamenak egiteko aurrekontu nahikorik ez dagoela adierazita.

Laburpen bezala, aurrekontuak osatzeko herritarren zerbitzu egokia ematea eta udal eraikin berriaren obra izango direla ildo nagusiak gaineratu du.

Jarraian, Ana Leunda zinegotziak bere taldearen izenean adierazpen hauek egin ditu:

- Kultura saileko

EAJ-PNV Udal taldeak lau proposamen aurkeztu ditugu 2.022ko aurrekontuetarako.

- Proposamen guztiak begi onez ikusi badituzue ere, bakarra onartu duzue, bizikletak konpontzeko gunea sortzea.
- Ibilgailu elektrikoaren kargarako puntuari dagokionez Foru Aldundiarekin elkarlanean proiektu bat lantzen ari zarete. Ez bada aurrera ateratzen, ez duzue esaten jarriko denik.
- Kaskailu plazako haur jolastokia, jarri zenetik 20 urte pasa direla eta eraberritze baten beharra dagoela baina beste lehentasun batzuk daudela esaten duzue.
- Komun publikoaren inguruan ez duzue baztertzen jartzea auzo horretan, galdeketa egin ondoren ikusi duzue emaitza estua eta egiazko beharra dela baina hemen ere ez dago hortarako dirurik.
- Urtea luzea da, kreditu aldaketa bidez edo gerakina erabiliz egin daitezkeen proiektuak dira. Borondate kontua da, hori falta da borondatea.

Alkateak erantzun du, berriro ere ados daudela, baina komun publikoaren kasuan, EAJ taldeak egon zen parte-hartze prozesuan ez parte-hartzea aurpegiratu die. Alkateak berak onartu du Ibaiondo inguruan ezartzearen aldeko bozka egin zuela (Leticia zinegotziak ere bere bozka hori izan zela adierazi du).

Jarraian bozketara pasa dira:

BOZKETA.- Alde 4 EhBilduko bozkek eta aurka 4 EAJ/PNV taldeko bozkek. Alkateak kalitatezko botoa erabili du berdinketa hausteko, beraz 5 boto Alde eta 4 aurka.

OGASUN BATZORDEAREN IRIZPENA
2022KO UDAL AURREKONTU PROIEKTUA ONARTZEKO

2022 urtean indarrean izango den Aurrekontua osatzeko garaia iritsita, udal gobernu taldeak bere aurrekontu proposamena aurkeztu zuen abenduaren 10eko Ogasun Batzordean. Egun berean gonbidapena luzatu zien beste udal taldeei, egoki ikusten zituzten ekarpenak egin zituzten.

Udal Gobernuak egindako ekarpenez gain, EAJ-PNV udal taldeek idatziz egindako ekarpenak jaso dira abenduaren 15a bitartean.

Jasotako ekarpen guztiak aztertu eta erantzun ondoren eta legezko txosten guztiak jaso ondoren, osatuzat eman zuen Aurrekontu proiektua udal gobernu taldeak eta abenduaren 10eko Ogasun Batzordean honako diktamen edo erizpena luzatu zaio Udalbatza Osoari.

1.- 2022 ekitaldirako Irurako Udalaren Aurrekontu proiektua hasieraz onartzea, guztira 2.582.065 €urokoa eta kapituluka honako laburpena duena:

2.- Hasieraz onetsitako Aurrekontua jendaurrean jartzea 15 eguneko epealdian Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiotelarik.

IRURAKO AURREKONTU OROKORRA 2022

KAPITULUKA

SARRERAK	2022	%
I Zerga zuzenak	649.260,00	25,14%
II Zeharkako zergak	30.000,00	1,16%
III Tasak eta bestiak	305.230,00	11,82%
IV Transferentzia arruntak	1.591.425,00	61,63%
V Ondare sarrerak	3.500,00	0,14%
	Sarrera arruntak:	2.579.415,00
		99,90%
VI Inbertsioak besterenganatzea	0,00	0,00%
VII Kapital transferentziak	1.200,00	0,05%
VIII Finantza aktiboak	950,00	0,04%
IX Finantza pasiboak	500,00	3,60%
	Kapital sarrerak:	2.650,00
		0,10%
	SARRERAK GUZTIRA	2.582.065,00
		100,00%
GASTUAK	2022	%
I Langile gastuak	974.714,00	37,75%
II Ondasun eta zerbitzu arruntak	795.415,00	30,81%
III Interesak	10.000,00	0,39%
IV Transferentzia arruntak	459.558,00	17,80%
V Kreditu globala	13.878,00	0,54%
	Gastu arruntak:	2.253.565,00
		87,28%
VI Inbertsio errealak	258.500,00	10,01%
VII Kapital transferentziak	65.000,00	2,52%
VIII Finantza aktiboen aldaketa	0,00	0,00%
IX Finantza pasiboen aldaketa	5.000,00	0,19%
	Kapital gastuak:	328.500,00
		12,72%
	GASTUAK GUZTIRA	2.582.065,00
		100,00%
AURREZKIA: 21/2003 F.A.: 14.6 artikulua:		
	Sarrera arruntak: (1)	2.579.415,00
		99,90%
	Amortizazio gastuak: (2)	5.000,00
		0,19%
	Gastu arruntak: (3)	2.253.565,00
		87,28%
Aurrezki arrunta = (1) - (2) - (3)	320.850,00	12,43%

Irura, 2021eko abenduaren 13an
Ogasun Batzordeko Idazkaria

2.- 2022KO PLANTILLA ORGANIKOA HASIERAZ ONARTZEA.

**OGASUN BATZORDEAK UDALBATZARI ONARTZEA PROPOSATZEN DION
DIKTAMENA**

**GAIA: 2022. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO
ONARPENA**

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. Artikuluan, eta Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla onartu behar da.

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gai hau diktaminatu gabe dator, beraz, udalbatzarrean gaia tratatzeko bozketa egin behar da.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzari erabaki hau hartzea proposatzen zaio:

LEHENENGO: Erabaki honi erantsita doan Irurako Udaleko 2022ko Plantilla Organikoari hasierako onarpena ematea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekeelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren dokumentua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Iruran, 2021eko abenduaren 13an.
BATZORDEKO IDAZKARIA**

RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2022.
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

Nº de Orden	Denominación	Tipo Puesto	Provisión	Grupo	Escala	Subescala	Titulación exigida	Perfil linguístico	Fecha precep.	Nivel Retrib.	Comp Dest.	Compl. Especif.	Dedic.	Req. Especif.
1	Secretario/a -interventor	S	C	A1/A2	HN	SI	½	4	31-12-01	23	26	21.422,24	100%	D.E. 16%
2	Administrativo/a de Secr.	S	C	C1	AG	AA	3	3	31-12-93	13	16	17.226,16	100%	
3	Administrativo/a de Int.	S	C	C1	AG	AA	3	3	01-01-06	15	18	19.018,72	100%	
4	Administrativo/a de Atención al público	S	C	C1	AG	AA	3	3	01-07-15	13	16	17.226,16	100%	
5	Respon. servicios	S	C	C1	AE	SE	3	2	01-01-06	15	18	19.018,72	100%	D.E. 15%
6	Oficial/a Coord.	S	C	C2	AE	SE	4.1	2	31-05-00	12	16	18.379,48	100%	B
7	Oficial (2)	N	C	C2	AE	SE	4.1	2	01-01-20	10	12	15.972,46	100%	B
8	Responsable de cultura	S	C	A2	AE	TE	2.2	4T.P.	-	17	20	17.886,68	100%	

9	Técnico/a de Euskara	S	C	A2	AE	TE	2.3	4T.P.	-	15	19	15.388,10	40%	
10	Auxiliar de Cultura	S	C	C2	AE	TE	4.1	3	31-12-07	10	12	14.739,48	100%	
11	Animador/a Socio-cultural	S	C	C1	AE	TE	3.1	3	01-07-15	13	16	16.151,88	100%	
12	Arquitecto-técnico/a	S	C	A2	AE	TE	2.1	3	26-11-97	19	22	20.685,47	60%	
13	Trabajador/a social	S	C	A2	AE	TE	2.4	3	01-01-04	16	20	16.707,10	85%	
14	Operario/a de limpieza de edificios(2)	N	C	E	AE	SE	5	1	21-01-01	7,5	9	13.837,18	100%	

PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

	Ez dago.														(1)
--	-----------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	------------

2022 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA
KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDE TAKO LANPOSTUAK

Zk:	Izena	Lanpostu mota	Hornitzeko era	Taldea	Eskala	Azpi eskala	Eskatu t. titulazio	Hizk. eskak.	Derrig. data	Ordai. maila	Lanp. Osaki	Osakin berezia	Jarduna	baldintza Espezif.
1	Idazkari kontuhartzailea	S	K	A1/A2	GN	IK	1/2	4	01-12-31	23	26	21.422,24	% 100	B.D.% 16
2	Idazkarien Administrazioa	S	K	C1	AO	AA	3	3	93-12-31	13	16	17.226,16	% 100	
3	Kontuhartzailaren Administrazioa	S	K	C1	AO	AA	3	3	06-01-01	15	18	19.018,72	% 100	
4	Jende aurreko Administrazioa	S	K	C1	AO	AA	3	3	15-07-15	13	16	17.226,16	% 100	
5	Zerbitz. arduraduna	S	K	C1	AB	ZB	3	2	06-01-01	15	18	19.018,72	100%	B.D.% 15
6	Ofizial Koordinatzaile	S	K	C2	AB	ZB	4.1	2	00-05-31	12	16	18.379,48	% 100	B
7	Ofiziala (2)	ES	K	C2	AB	ZB	4.1	2	20-01-01	10	12	15.972,46	% 100	B
8	Kultur arduraduna.	S	K	A2	AB	TB	2.2	4 T.G.	-	17	20	17.886,68	% 100	

9	Euskara teknikaria	S	K	A2	AB	TB	2.3	4T.G.	-	15	19	15.388,10	40%	
10	Kultur Laguntzailea	S	K	C2	AB	TB	4.1	3	07-12-31	10	12	14.739,48	%100	
11	Eragile Sozio-Kulturala	S	K	C1	AB	TB	3.1	3	15-07-01	13	16	16.151,88	%100	
12	Arkitekto teknikoa	S	K	A2	AB	TB	2.1	3	97-11-26	19	22	20.685,47	%60	
13	Gizarte langilea	S	K	A2	AB	TE	2.4	3	04-01-01	16	20	16.707,10	%85	
14	Eraikin Garbitzeko Langilea (2)	ES	K	E	AB	ZB	5	1	21-01-01	7,5	9	13.837,18	%100	

LAN HITZARMENA DUTEN LANGILEEI GORDETAKO LANPOSTUAK

Ez dago.														
----------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

CLAVES

KODEAK

Tipo de Puesto

S – Singularizado
N - No singularizado

Provisión

C – Concurso
L – Libre designación

Escala

Lanpostu mota

S - Singularizatua
ES – Ez Singularizatua

Horniketara

K – Lehiaketa
IL – Izendatze Librea

Eskala

HN – Habilitación Nacional
AG – Administración General
AE – Administración Especial
S u b e s c a l a

AA – Administrativo Administración General
AX – Auxiliar Administrativo de Administración General
SI – Secretaría – Intervención
SE – Servicios Especiales
TE – Técnico Administración Especial

T i t u l a c i ó n E x i g i d a

- 1 – Licenciatura, Ingeniería, Arquitectura o Grado.
- 2 – Diplomatura Universitaria, Arquitectura Técnica, Ing.Técnica o equiv.
 - 2.1.- Arquitectura Técnica o equivalente.
 - 2.2.- Diplomatura Universitaria o equivalente.
 - 2.3.- Diplomatura en Filología Vasca o equivalente.
 - 2.4.- Diplomatura en Trabajo Social o equivalente.
- 3.- Bachiller, Formación Profesional de 2º grado o equivalente.
 - 3.1.- Animador Socio Cultural Grado Superior o equivalente.
4. – Graduado en ESO ,Formación Profesional de 1º Grado o equivalente.
 - 4.1.- Formación Profesional de 1º Grado o equivalente,
- 5 – Certificado de escolaridad o equivalente.
- 7 – Según catálogo Puesto de Trabajo

GN – Gaikuntza Nazionala
AO – Administrazio Orokorra
AB – Administrazio Berezia
A z p i e s k a l a

AA – Administrazio Orokorreko Administrazioa
AL – Administrazio Orokorreko Laguntzailea
IK – Idazkaritza – Kontuhartzaitza
ZB – Zerbitzu Bereziak
TB – Administrazio Bereziko Teknikaria

E s k a t u t a k o t i t u l a z i o a

- 1 – Lizentziatura, Ingenieritza, Arkitektura edo Gradua.
- 2- Unibertsitateko Diplomatura, Arkitektura Teknikoa ,Ing. Teknikoa edo baliokidea.
 - 2.1-Arkitetuta Teknikoa edo baliokidea.
 - 2.2.-Unibertsitateko Diplomatura edo baliokidea.
 - 2.3-Euskal Filologiaren Diplomatura edo baliokidea.
 - 2.4.- Gizarte Lanean Diplomatura edo baliokidea.
- 3.- Batxilergoa,,Lan Bide Heziketa II. maila edo baliokidea
 - 3.1.- Giza Kultur Supertzailea Goi Mailakoa edo baliokidea.
- 4-Eskola Graduatua, Lanbide Heziketa 1. maila edo baliokidea.
 - 4.1.- Lanbide Heziketa 1. Maila edo baliokidea.
- 5- Eskola Agiria edo baliokidea.
- 6.- Lan Postuen Katalogoaren arabera.

BOZKETA.- Alde 9 bozka, aho batez onartu da proposamena.

Amaitu aurretik Alkateak udaletxeko zerbitzuen trasladoan lanean jardundako tekniko eta boluntarioei esker ona adierazi die eta Gabonak ongi pasatzeko desiratu die batzarkide guztiei.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:30 eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.